itzulpena: Anjel Lertxundi

Eugenio Montale

Munduko
Poesia
Kaierak

Eugenio Montale

itzulpena: Anjel Lertxundi

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Eugenio Montale
© itzulpenarena: Anjel Lertxundi
© edizio honena: Susa

2015eko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Eugenio Montale XIX. mendearen akaberan jaio zen Genovan, 1896an, eta XX. mendeko poeta italiar handienetakoa izatera iritsi zen. Haurtzaroko oporraldi ugari eman zituen familiak Monterosso al Mare-n zuen etxean, Mediterraneoko itsasertz eder horietako batean, eta ingurune haren printzak topatzen dira Montalek idatzitako lehenengo poemetan, *Txibia-hezur* bere estreinako liburu gogoangarrian esaterako. Lehen Mundu Gerra ondoren frontetik itzulita, zenbait literatur aldizkaritan (*Primo tempo*, *Il Baretti*) hasi zen kolaboratzen eta poemak argitaratzen. 1925ean Benedetto Croce-k idatzitako *Intelektual antifaxisten manifestua* sinatu zuen, nahiz eta auzi politikoekiko aski eszeptikoa eta pesimista izan zen bizitza guztian. *Corriere della Sera*ko erredaktore izan zen 1948tik aurrera. Nagusiki literatur kritikak idazten zituen, baina baita musikakoak ere (gaztetan kantari izateko ikasten ibili zen zortzi urtez Ernesto Sivori baritonoarekin). Literatura Nobel saria jaso zuen 1975ean eta 1981ean zendu zen Milanen.

Montaleren poesiaren gaineko topikoak dio haren poesia aski konplexu eta ulertzeko gaitza dela; ez alferrik kokatu ohi da poesia hermetikoaren aita ponte-

koen artean. Hermetismoa batez ere Italian (Florentzian zehazkiago) garatutako ildo poetikoa izan zen, besteak beste Gabriele D'Annunzioren joritasun eta desmasia erretorikoei kontra egin ziena, eta Montalez gain Salvatore Quasimodo eta Giuseppe Ungaretti izan zituena inspirazio iturri nagusi. Montaleren poesia, baina, axalekoa eta ebidentea ez den arren, urrun dago gehienetan ulertezina eta guztiz iluna izatetik. Apartekoa da, ordea, ildo sinbolista onenean kokaturik, giro eta sentsazioak gogora ekartzen, eta irakurleak sarri poema lehenengoan erabat bereganatuko ez badu ere, ez zaio konplikatua izango lerroek irudikatzen dituzten kolore, usain edo paisaietan murgiltzea. Horren adibide da esaterako *Limoiak* poema, zentzumenen mozkorraldi moduko bat. Bikaina da orobat une jakin bat, lipar bat edo irudi bat pare bat lerroz marrazten zein poemak biribiltzen: "*gu biok gauza bakarra garela bat eginda zein bi izanda*".

Izugarrizko ekoizpen poetikoa ez izanagatik, estilo eta molde aski ezberdineko poemak idatzi zituen Montalek. Horietako zenbaitetan, adibidez, poesiari berari eta arteari buruz hausnartu zuen, ukitu umoretsua gehituta inoiz (irakur *Poeta bat* eta *Errimak*). Egiazki, ez da irri egiteko poesia mota bat Montalere-

na, ezpada XX. mende lazgarriaren testigu maiz aski iluna. Bi mundu gerrak eta faxismoa gertu-gertutik bizita, nekez egin zezakeen ospakizun-poesiarik, eta giza hondamendia ere ekarri zuen *Gure garaiaren gorazarre* eta *Sumina* bezalako aleetara. Mendea minutua den hondo bat irudikatu zuen *Gatibuaren ametsa*n, eta akaso handik etorri zen mendea eta segundoa gurutzatzen diren leku famatu hori. Izan ere, beste askorentzat bezalaxe, ziztuan igaro ei zitzaion Montaleri ere XX. mende bizi bezain zoritxarrekoa: "*nahiz denbora laburtzen ari den eta mendeak / ez diren lumak airean baino*".

Garai horien ondorio izango zen beharbada Montalek eskatologiarekin, hilondoko munduaren eta bizitakoaren mugarekin (*In limine*) alegia, eduki zuen tema. Ildo horrek, gainera, arestian aipatutako sinbolismora garamatza baita ere, bi munduen analogia edo korrespondentziak landu zituelako artez. Bizitzari dagokionez, baina, argi utzi zuen Montalek: "*Ez daude bizitza laburrak edo luzeak / benetako bizitzak baizik edo bizitzaheriotzak edo halakoak*". Ez da irakaspen makala bizitzaz bezainbat heriotzaz idatzi zuen norbaitena izateko.

BEÑAT SARASOLA

In limine

Goza ezazu baldin sagastian dabilen haizeak
ostera badakar biziaren olatualdia:
memorien mataza mortua
hondoratzen den leku honetan
ez zen orturik, bai erlikia-ontzia.

Sentitzen duzun hego-hotsa ez da hegaldia,
baizik altzo eternoaren zirrara;
ikus lur bakarti honen bazter-adarra
nola den bihurtzen arragoa.

Herra dabil murru jasoaren honanzko zokoan.
Aurrera egiten baduzu, suertatuko zaizu
apika salbatuko zaituen mamua:
hemen bilbatzen dira istorioak, egintza
ezabatuak etorkizunaren jokoan.

Aurki iezaiozu sareari begi eten-sarria
estutzen gaituena, irten zaitez bertatik, egizu ihes!
Zoaz, zugatik erregutu dut —orain egarria
arinagoa egingo zait, ez hain garratza herdoila…

Limoiak

Entzuidazu, poeta ereinoztuak dira
Mugitzen diren bakarrak gutxi erabilitako
landare-izenen artean: ezpelak zuhandorrak edo
akantoak.
Nik, nire baitan, maite ditut kaleak eramaten
dutenak
zanga belartsuetara non putzu erdi lehortuetan
mutikoek zelatatzen baitute
aingira mirrinen bat:
sakonguneen bazterretik doazen bidezidorrak
kanabera-bedatzeetan zehar jaisten dira
ortuetaraino, limoiondoen artean.

Hobe hegaztien zalapartak
zeruak irentsita itzaltzen badira:
ozenago entzuten da adar lagunen
zurrumurrua ia higatzen ez den airean,
eta lurretik guztiz askatzen ez dakien
usain honen jarioa sentitzen da
eta gozotasun urduri batek euria dagi bularrean.
Hemen pasio desbideratuetatik

txiripaz isiltzen da gerra,
hemen pobreoi ere badagokigu gure aberastasun-
partea
eta da limoien usaina.

Begira, gauzek beren buruak abandonatzen dituzten
isiltasun hauetan zeinak diruditen
traizionatzeko zorian daudela beren azken sekretua,
inoiz espero izaten dugu
Naturaren hutsegiteren bat aurkitzea,
munduaren puntu hila, falta zaion katebegia,
behingoz egiaren baten erdian
jarriko gaituen hari askatu berria.
Begiradak arakatzen du ingurua,
adimenak ikertzen du elkartzen du banatzen du
lurrin-uholdea aitzina doana
eguna gehien ahitzen ari denean.
Isiltasunak dira zeinetan ikusten baita
giza itzal orotan urruntzen ari den
Jainko ahalketuren bat.

Baina ilusioa falta da eta denborak itzultzen gaitu
hiri zalapartarira non urdina ageri baita
puskaka soilik, goian, etxe-erlaitzen artean.

Gero, euriak lurra nekatzen du; neguko gogaita
pilatzen da etxeen gainean,
argia da bihurtzen zikoitza —mingoitza arima.
Harik eta egun batez, gaizki itxitako atetzar batetik,
patio bateko arbola artetik
agertzen den arte limoien horia:
eta bihotzeko jela urtzen da
eta bularrean jausika hasten zaizkigu
haien kantuak,
argitasunaren urrezko erauntsiak.

Adar ingelesa

Haizeak zeinak arratsalde honetan adi jotzen baititu
—xaflen astintze bortitza du iradokitzen—
arbola sarrien musika-tresnak eta abarrak
barreiatzen baititu
argi-zirrintak aireratuz iparreko haizeak
bailiran zeruaren kontra burrunbaka
(Hodei bidaiariak, han goiko
erresuma argiak! Gailurretako Eldoradoetan
ate gaizki itxiak!)
eta itsasoak zeinak, ezkataz ezkata,
zurbil, kolorea aldatzen baitu,
apar kiribilduen erauntsi bat
lehorrera du jaurtitzen;
astiro iluntzen duen orduan
jaiotzen eta hiltzen den haizeak
arrats honetan joko bazintu zu
tresna desafinatua,
bihotza.

Sarkofagoak

(fragmento bat)

Nora doaz neskatxa kizkurrak
bizkarretan anfora beteak garraio
eta ibilera irmoa hain arina dutenak;
eta han hondoko puntuan
harana alferrik dago ederren zain
zeinak gerizpean baitaude mahasti bateko parralean
mahats mordoak gainean zintzilik kulunkari.
Eguzkia goian doa,
aldapa erdi lausoek
ez dute tindurik: minutu
bigunean argiak jotako naturak
zirkintxoekin hartzen ditu bere kreatura
zoriontsuak, ama ez amaorde,
formen arintasunean.
Lotan dagoen mundua edo existentzia aldaezinaz
harrotzen den mundua, nork esan dezake?,
pasarako gizon horrek, emaiezu
zure ortuko sortatxorik onena.
Gero segi aitzina: haran honetan
ez dago itzalaren eta argiaren segidarik.

Zure bideak gidatzen zaitu hemendik urrun,
ez dago babesetxerik zuretzat, hilegia zaude:
jarraitu zure izarren norabidea.
Agur, beraz, neskatxa kizkurrak,
eraman bizkar gainean anfora beteak.

[hurbil itzak]

Hurbil itzak ontzi kartoizkoak
moila kiskalira, eta egik lo,
kapitain ttipi: ez itzaala so
belaz nabigatzen duten espiritu gaiztoak.

Hontza hegaldan dabil ortuan barrena
eta pisuak dira sabaietako keak.
Iritsi da liparra etetera lan luzearen atsedena:
sekretua arrailduz orain, erauziz gero kolpean.

Eta haustura gertatzen da; zaratarik gabe agian.
Eraiki duenak bere kondena sentitzen du.
Haize-gerizak babestutako ontziarena soilik da ordu.
Lot ezak hire ontzidia hesien erdian.

Mediterraneoa

(fragmento bat)

Antzinako, horditurik nauka
zure ahoetatik irteten den ahotsak,
zabaltzen direnean kanpai berdeen gisa,
eta atzerako indarra hartu eta gero, desegin.
Auzo zenuen nire uda
urrunen etxea, badakizu,
eguzkiak kiskali egiten duen lur hartan
eta eltxoek airea lainotzen.
Orduan bezala harritzen naiz zure aurrean,
itsaso, baina ez naiz duinagoa sentitzen
zure arnasaren kargu hartze
hotsandikoaren aurrean. Zuk esan zenidan estreina
nire bihotzaren hartzigarri txikia
ez zela zurearen lipartxo bat baino;
nire hondoan zure lege arriskutsua zegoela:
zabala eta ugaria eta, aldi berean, egonkorra izatea:
eta zametatik libre gelditu nahi dut
zuk kortxoen algen itsas-izarren artean
hondartzetara jaurtitzen dituzun bezalaxe
zure abismoaren hondakin alferrikakoak.

Etxea itsas gainean

Bidaia hemen amaitzen da:
oihu egiteko gauza ez den arima
zatitzen duten ahalegin zekenetan.
Orain minutuak berdinak dira eta finkoak
ur-ponparen gurpil-jirak bezala.
Jira bat: burrunba egiten duen ur-goratzea.
Beste bat, ur gehiago, kirrinka bat aldian behin.

Mareak etengabe eta astiro neurtzen duen
hondartza honetan amaitzen da bidaia.
Ke nagiek salbu,
deusek ez du salatzen
haizekirri arinek maskorrekin
osatutako itsas-bisaia:
eta harrigarria da barealdi mutuan agertzea,
airearen irla alderraien artean,
Kortsika konkorduna edo Capraia.

Zuk galdetzen didazu dena desagertzen ote den
oroitzapenen laino apur honetan,
patu oro konplitzen ote den durduzaren orenean

edo olatualdiaren hasperenean.
Ezetz esan nahi nizuke, iristear duzula
denbora baino harago igarotzeko tenorea;
agian ez da betikotzen gogoa duena baizik
eta, onenean, zuk lor zenezake hori, ez nik.
Pentsatzen dut gainerakook ez dugula salbamenik,
eta zoria ez du bateon batek baino gainditzen,
ibia pasatzen, bere burua nahi duen gisa aurkitzen.
Etsi baino lehenago nahi nizuke erakutsi
ihesaren bide hezigaitza,
itsasoko landa asaldatuetako aparra edo zimurra
bezain egongaitza.
Oparitzen dizut halaber nire esperantza zekena.
Azken aldiotan, akituta, ez dakit zaintzen:
zure patuaren aintzarako eskaintzen dut, anpara
zaitzala.

Mareak higidura aldizkakoan itxuraldatzen dituen
itsasertz hauetan amaitzen da bidaia.
Entzuten ez nauen zure bihotz hurbila
itsasoratu da agian eternitaterantz.

Hildakoak

Itsasoak aurreko ertz-hegian hautsirik
ninboa altxatzen du aparra barreiatuz
ordokiak berriro xurgatzen duen arte. Itsasertz
herdoildu hartan jaurti genuen behin
gure esperantza itsasoarena baino
arnasestuagoa!—, eta zurrunbilo antzua berdetzen
da
bizien artetik ikusten genuenean bezalaxe.
Iparrak ur-lasterren korapilo uherra
askatzen duen honetan eta iturburura
itzularazten, arbola inaustuen adarretan
norbaitek sareak esekitzen ditu
galtzen direnak kale aldapa behera batean;
argiaren ukitu hotz eta geldoak lehortzen dituen
sare kolorgeak; eta argiaren gainetik
zeruko kristal trinkoak kliskatzen du
eta erortzen da ortzadar zigortuaren
arku gainean.
Berregoste horrek agertzen digun
alga herrestu bat baino zerbait gehiago

mugitzen du pausa honek gure bizitza: zirimolatzen
du
egun batez gugan bere mugetara
etsi zena, eta adarrek lotzen dituzten
harien artean, bihotza inarrosten da
beren hegaldiak sare-soketan itotzen zaizkien
uroiloak bezala;
eta geldirik eta alderrai lotzen gaitu
finkotasun izoztu batek.
Honela
hildakoei ere agian ukatzen zaie atsedena
zokor azpian: bizia bera baino indar gupidagabeago
batek
ateratzen ditu hortik, eta,
giza oroitzapenek jazarritako larba,
urbazter honetara bultzatzen ditu,
hats materiarik gabeak edo ilunpeak
traditutako ahotsak; eta haien hegaldi
trabatuek ukitzen gaituzte orain
oztaz bananduak gugandik eta ozeanoaren
galbahean hondoratzen dira...

Dora Markus

I

Gertatu zen egurrezko zubiak itsas barrura
Porto Corsinira eramaten duen puntuan,
gizon bakanek, ia geldirik, sareak hondoratzen
edo jasotzen dituzten hartan. Esku-keinu batez
zure benetako aberria seinalatu zenuen
aurrez aurreko itsas bazterrean.
Gero ubidea segitu genuen hiriko
nasaraino, kedarretan distiratsu,
hondarbaltsetan barrena non urmaeldua baitzen
udaberri inerte bat, memoriarik gabea.

Eta hemen, bizitza antzinako bat
Ekialdeko kabituezin eztian
orbantzen den honetan,
zure hitzak irisatzen ziren
perloi hil-hurrenaren ezkatak bezala.

Arrats ekaiztsuetan faroen kontra lehertzen diren
paseko hegaztiak gogorarazten dizkit

zure ezinegonak:
ekaitz bat da halaber zure gozotasuna,
lehertzen da eta ez da ageri
eta are arraroagoak dira haren soseguak.
Ez dakit nola irauten duzun akituta
zure bihotza den indiferentziazko
laku honetan;
agian ezpainetako lapitz, hautsontzi
eta limaren ondoan gordetzen duzun
kuttun batek salbatzen zaitu: sagu zuri
marfilezko batek; eta horrela eusten diozu!

II

Orain urmaelen eta mirto
loratu berrien zure Karintian,
urertzean makurtuta zelatatzen duzu
amuari herabe heldu dion karpa
edo arratsalde gailurretan gora hasia
begiratzen duzu ezki artean
eta toldoen moilen eta ostatuen
garraldia uretan.

Arro hezean zabaltzen hasitako
arratsak ez dakartza
ahateen intziriak baino
motorren taupadekin
eta maiolika zuri-zuri baten barruak
errore izukaitzen historia bat azaltzen dio
desberdina ikusi zintuen
ispilu belztuari eta grabatu egiten ditu
esponjarik iristen ez den lekuan.

Zure legenda, Dora!
Idatzita dago jada
urrezko erretratu handietan
patilla noble eta ahulak
luzitzen dituzten gizonen begiradetan
eta harmonika matxuratuaren
akorde bakoitzarekin itzultzen da
arrats beherako orduan, gero eta beranduago beti.

Han dago idatzita. Sukalderako ereinotz
betiberdeak eutsi egiten dio,
ahotsa ez da aldatzen,
Ravena urruti dago, fede anker batek
pozoia destilatzen du.

Zer nahi du zugandik? Ez dira errenditzen ahotsa, legenda edo patua...
Baina berandu da, gero eta beranduago beti.

Mugazainen etxea

Zuk ez duzu gogoan mugazainen etxea
harkaitzen gaineko koskan zintzilik:
atsekabeturik daukazu zain gau hartatik,
zure pentsamenduen erlauntza bertan sartu zenetik
eta artegatsu gelditu hantxe.

Haizeak horma zaharrak astintzen ditu aspalditik
eta zure irriaren hotsa jada ez da bozkariozkoa:
iparrorratza erotuta dabil menturara
eta dadoen erantzuna ez da jada itzultzen.
Zuk ez duzu gogoan; beste sasoi batek nahasten du
zure oroimena; hari bat libratzen da.

Mutur bati eusten diot oraindik; baina etxea
urruntzen da eta sabai gaineko haize-orratz
ketua jiraka dabil errukirik gabe.
Mutur bati eusten diot; baina zu bakarrik zaude,
hemen ere ez duzu arnasarik hartzen ilunpean.

Oi zerumuga ihesean, petroliontziaren
argia inoiz pizten den puntuan!

Pasabidea hemen da? (Olatualdiak labar malkartsua astintzen du oraindik...)
Zuk ez duzu gogoan nire arrats honetako etxea. Eta nik ez dakit nor doan eta nor den gelditzen.

Eastbourne

“Jainkoak salba beza Erregea” entonatzen dute
turutek
hainbat zutaberen gaineko oholtza batetik,
haren azpitik itsas gorak bide egiten duelarik
zaldien oinatz hezeak ezabatuz
kostaldeko harean.

Haize hotz batek jotzen nau
baina dirdai batek kristalak pizten ditu
eta harkaitzetako mikaren xalotasuna
distirarazten.

Bank Holiday… Nire bizitzaren
olatu luzea itzultzen da
irristan, eztiegi maldan behera.
Berandu da. Burrunba ahultzen da,
sordinan ahitzen.

Mutilatuak doaz beren gurpildun orgetan,
lagun dituztela belarri luzeko txakurrak,
ume isilak edo zaharrak (Agian bihar

guztiak ametsa emango du.)
Eta bazatoz
zu ere, ahots gatibua, norabidea nahastu duen
loturarik gabeko arima,
odolezko ahotsa,
galdua eta nire arratsera itzulia.

Hotel bateko atea dirdiraka
mugitzen den bezala bere orrien gainean
—beste batek erantzuten dio eta tximista bat
itzultzen—
dena erauzten duen karrusel batek durduzatzen nau
bere jirabirarekin, eta nik adi-adi
zure arnasa sentitzen dut (“aberri nirea!”)
eta jaiki egiten naiz eta eguna maiztuegia da.

Guztiak emango du hutsala: baita indarrak ere
bere zori lizunean nahasten dituelarik
biziak eta hilak, harkaitzak eta arbolak,
eta zure baitatik ernaltzen denak, zugatik. Festak
ez du barkatzen. Bandak
bere zalaparta berritzen du, arrats lehenarekin
armarik gabeko ontasun bat hedatzen da.

Gaizkia garaile… Gurpilak tinko darrai.

Zuk ere bazenekien, ilunpetan-argi.

Arrats sutsuan, lehen kanpai-hotsekin
desagertu zinen lekuan, ez da gelditzen
Bank Holiday
izandakoaren txingar lakarra baino.

Itsas ibilbidea

Aire-ufada hazten ari, ilunpea mila puskatan hautsi da
eta oholesira bidaltzen duzun itzala
kizkurtu da. Beranduegi

zu zeu izan nahi baduzu. Arraun-palatik
murgil dagi saguak, txinparta metxa-puntan dago,
zure soaren betile luze-luzeen gainean.

Siria

Antzinakoek zioten poesia
zurubia dela Jainkoarenganantz. Agian ez da hala
irakurtzen banauzu. Baina zugatik ahotsa
berreskuratu nuen egunean jakin nuen hori, solte ni
lainoen eta ahuntzen saldo baten erdian
arantzen eta sasien hausnarrean zebiltzanak
haitz baten gaineko oreka doian, eta ilargiaren eta
eguzkiaren
aurpegi zimelek bat egiten zutelarik,
motorra matxuratuta zegoen eta odolezko
gezi batek harri baten gainean
Alepoko bidea seinalatzen zuen.

Aingira

Aingira, Baltikoa abandonatzen duen
itsas hotzetako sirena
gure itsasoetara iristeko,
gure estuarioetara, hondotik gora
igotzen dituen ibaietara, ur-lasterren kontra,
adarretik adarrera eta ondoren
haritik harira, gero eta sotilago,
gero eta barrurago, gero eta baitarago
harkaitzaren arimara, erreka lohituen hondotik
lerratuz harik eta egun batez
gaztainondoek barreiatzen duten argi batek
distira pizten duen arte ur-hilen putzuetan,
aldapa apeninotarretatik Romagnaraino
jaisten diren zangetan;
aingira, zuzi, zigor,
lurrean Maitasunezko gezi,
zeina soilik gure uberkek edo
erreka piriniotarrek bideratzen baitute
ernalketaren paradisuetara;
bizitza bilatzen duen arima berdea
lehortea eta hondamendia

baino ez dagoen lekuan,
txinparta esaten duena
oro hasten da orok dirudienean
ikatza, adar lurperatua;
iris laburra, zure betazalek
harilkatzen dutenaren bikia
eta guztiz distirarazten duzuna gizakiaren
seme-alaben artean, zure lohian hondoratuak,
posible duzu zuk ez hartzea arrebatzat?

Gatibuaren ametsa

Albak eta gauak zeinu apurretan aldatzen dira
hemen.

Artxorien sigi-sagak dorretzarren jiran
gudu egunetan, nire hego bakarrak,
aire polarraren bafada,
zaintzailearen begirada behatxulotik,
intxaur kraskatuen karraska, zirtaka
oliotsua sotoetatik, burruntzi
benetakoak edo ustezkoak —baina lastoa urre da
eta argiontzi ardokara sutondo da
zure oinetan nagoen ustean egiten badut lo.

Purgak betidanik dirau, zergatirik gabe.
Diote arnegatzen duena eta sinatu
salba daitekeela antzaren sarraski honetatik;
bere barruari uko egiten dionak, nahiz besteen
haragia
traizionatu eta saldu,
burruntzaliari eusten diola, bukatu ordez
Jainko kirastsuen *pâté* bihurturik.

Burua makal eta ohatze zaztatzaileak
zauriz zulatua, bat egin dut
nire oinpeak zapaltzen duen
sitsaren hegaldiarekin,
goizalbak dorretzarretatik barreiatzen dituen
argien kimono aldakorrekin,
labeetako erroskilen
erre-sunda usaindu dut,
eta nire burua begiratu dut inguruan,
distirak eragin ditut amaraunen ortzemugan
eta petaloak burdin hesietako arrakaletan,
zutitu naiz, erori naiz berriro
mendea minutu den hondoan—

eta kolpeak berritzen dira eta pausoak,
eta oraindik ez dakit oturuntzako hestebete
izango naizen edo hestebetetzaile. Itxaroa luze da,
ez da amaitu zuganako nire ametsa.

Xenia I

1

Intsektu txiki maitea
euli deitzen zutena ez dakit zergatik,
gaur arratsaldean ia ilunpetan
irakurtzen nengoela Deuteroisaia
nire aurrean agertu zinen ostera,
baina ez zeneraman betaurrekorik,
ezin ninduzun ikusi
nik ere ez distira hura gabe
zu lanbrotan ezagutu.

2

Betaurrekorik eta antenarik gabea,
intsektu gaixo bat hegoak zenituena
zure irudimenean baino ez,
biblia orrimaiztu bat eta gainera
ez oso fidagarria, gauaren beltza,
tximista, trumoia eta gero

ekaitzik ere ez. Akaso hain goiz
alde egin zenuen hitzik gabe? Baina irrigarri da
zuk artean ezpainak zenituela pentsatzea.

3

Parisko Saint-Jamesen gela “banako” bat
eskatu beharko dut (bezero bikote gabeak
ez dituzte gogoko). Eta halaxe halaber
zure hotel veneziarreko Bizantzio
aizunean; gero neska telefonisten
gelatxoa, zure betiko lagunena,
bilatzeko; eta nik alde berriro,
ahituta jardun mekanikoa,
zu berriro nire izateko irrika, nahiz
keinu bat izan edo ohitura.

4

Adostua genuen txistu-dei bat
beste mundurako, han elkar ezagutzeko seinalea.
Saiatzen naiz modulatzen esperantzari eutsiz
denok gaudela hilda hala gaudenik jakin gabe.

5

Ez nuen inoiz ulertu zure txakur fidel
muki-dindirria nintzen
edo zu zinen halakoa enetzat.
Besteentzat ez, intsektu miope bat zinen
goi gizarteko txutxuputxuan
galdua. Xaloak ziren
maltzur haiek eta ez zekiten
berak zirela zure trufagai:
ilunpetan ere mozorrogabetzen zituen
zure sen okergabeak,
zure saguzar erradarrak.

6

Ez zenuen sekula pentsatu zure arrastoa
uztea prosa zein poesia idatziz. Eta zure
xarma izan zen —eta gero nire buruaren nazka
nirea.
Izan zen nire izua ere: gero neoterikoen
lohi korrokarira

botatakoa izatearena.

7

Nor bere buruaz errukitzea, tamal infinitoa, *hemen behea*
gurtzen duenaren angustia eta bestea espero duen arren
zalantza diona... (nor ausartzen da esaten beste mundua?)

“Erruki estrainioa...” (*Azuzena,* bigarren ekitaldia.)

8

Zure hitz hain baldar eta zuhurtasun gutxikoa da
orain asetzen nauen bakarra.
Baina aldatu egin da azentua, beste bat du kolorea.
Ohitu egin beharko dut zu entzutera edo zu dezifratzera
teletipoaren tekla-kolpeetan,
Brissagoko
nire puruen ke aldakorrean.

9

Entzutea zenuen ikusteko modu bakarra.
Telefonoaren kontua ia hutsera laburtu da.

10

“Errezatzen zuen?” “Bai, San Antoniori errezatzen
zion
lagundu egiten baitu bilatzen
San Hermesen arropa-kutxako
aterki galduak eta beste gauza batzuk.”
“Horretarako baino ez?” “Baita bere hilen alde
eta nigatik ere.”
“Aski da”, esan zuen apaizak.

11

Zure negarraz gogoratzeak (nirea bi halako zen)
ez du zure algaren leherdura itzaltzen.
Zure Azken Judizio pribatu baten, eta tamalez
gertatu gabearen,

aurrerakin halako batzuk ziren.

12

Udaberria dager bere sator pausoan.
Ez zaitut hizketan entzungo antibiotiko
pozoitsuez, zure femurreko iltzeaz,
omisio maltzur batek zure ondasunetan
egindako esku-arrantzaz.

Udaberria aurrera doa bere lanbro itsaskorrekin,
bere argi luzeekin, bere ordu jasanezinekin.
Ez zaitut jada lehian ikusiko denboraren,
mamuen, Udako arazo logistikoen
gainezkatzearekin.

13

Zure neba gazterik hil zen; zu zinen
erretratu obalatu batetik “posean” begiratzen didan
ile nahasiko neska koskorra.
Musika argitaratugabea idatzi zuen, inoiz entzun
gabea,

gaur kutxa batean edo zabortegi batean hobiratua.
Agian norbaitek jakin gabe berritzen du,
egia bada idatzitakoa idatzita gelditzen dela.
Ezagutu gabe maitatu nuen.
Inork ez zuen, salbo zuk, gogoratzen.
Ez nintzen peskizan ibili; orain ez du muntarik.
Zutaz gainera ni naiz bakarra izan zuena
haren existentziaren berri. Posible da, badakizu,
itzal bat maitatzea, itzalak izaki gu ere.

14

Diote nirea inongotasunaren
poesia dela.
Baina zurea izanda edozeinena zen:
zurea, ez zarena jada forma, esentzia baizik.
Diote poesiak bere gorenean
fugan goresten duela Osotasuna,
ukatzen dute dortoka
ibaia baino arinagoa dela.
Zuk zenekiena da mugimendua
ez dela estasiaren desberdin,
hutsa betetasuna dela eta sosegua,
lainoen artetik lausoena.

Horrela hobeto ulertzen dut zure bidaia luzea,
benden eta igeltsuen artean lotua.
Halatan ere ez nau sosegatzen jakiteak
gu biok gauza bakarra garela bat eginda zein bi
izanda.

Errimak

Errimak San Bizenteko damak baino
erretxinagoak dira: atea jotzen dute
eta segi teman. Ezinezkoa da haiek baztertzea
eta ez sartzekotan jasaten dira.
Poeta prestuak urrutiratzen ditu
(errimak), ezkutatzen ditu, tranpa egiten du eta
kontrabandoz sartzen. Baina santa-plantak
jeloskortzen dira eta goiz edo berandu (errimak eta
atsoak)
deika hasten dira ostera eta berak dira beti.

Elkarrizketa

“Gizakia historian badago ezdeusa delako da.
Historia *marché aux puces* bat da eta ez sistema
bat.”
“Probidentzia eta sistema dena bat dira
eta gizakia da Probidentzia duena”.
“Beraz probidentziala da
kiratsa ere”.
“Kiratsa positiboaren negatiboa da,
gizakia da haren ifrentzua jariatzen duena”
“Beti bildua baina bere hil oihalean”
“Sistema hirukoitzak
gaizkia jariatzen du eta jaurtitzen,
bikoitzak aldiz berarekin herrestan eramaten”.
“Baina ternarioak bitrinan gordetzen du
eta irabazten badu gurtu egiten du”.
“Vade retro,
Satana!”.

Fanfarrea

historizismo dialektikoa
materialista
autofagoa
progresiboa
inmanentea
atzerakorik gabea
beti barruan
inoiz ez kanpoan
inoiz ez hutseginkorra
guk egina
ez arrotzek,
zoroek baino
sinesten ez dituzten
gezurren barreiatzaileek

mirari sintetikoa
ez idiolektikoa
ezta indibiduala ere
unibertsala baizik
baraua
denak elikatzen dituena

eta inor ez

jauzi kuantitatiboa
tarari kualitatiboa
enpireoa
hilobia
etxean gelditzea norberaren
beste premiarik gabe, eta ezta hori ere
bai baitago arduratzen denik
eta da oinarririk gabeko
moral baten hedapena
salbu aldian behingo
buruzagi karismatiko baten
jarduna
irauten duen arte
edo diadokoena
haiek ere probidentzialak

patrikaren eternitate
ekonomikoa
zientzialari
arduratsu eta ondo
kontrolatuek
kontrolatua

basagizon onaren
heriotza
iritziena
ziurtasun ez ziurrena
epifaniena
gabeziena
gizabanako ez funtzionalarena
apaizarena aztiarena
intelektualarena

primate ohiaren
garaipena
sistema hirukoitzean
bere buruaren gainean gauza ororenean
baina noosferan
biguntzen den
zarakarraren
amarrurik gabe
eta papistek
modernistek edo fronte
popularrek
zer dira kaikuak!
barreiatzen dituzten

ziztrinkadarik gabe

gerra
dadinean progresista
inbaditzen duelako
indarkeriaz ez indarkeriaz
gauzak nola doazen
izan dadila ordea azkena
eta beti da halakoa
bere izaeraren kausaz

esadazu zuk
lagun ez konprometitu horrek
baduzu honen guztiaren
kontrako ezer?

Euria ari du

Euria ari du. Itogin bat da
motozikleten edo
haur txilioen
zaratarik gabea.

Euria ari du
lainorik gabeko
zeru batetik.
Euria ari du
greba orokorraren
orduotan
egiten ez denaren gainean.

Euri ari du
San Felice
a Ema-ko
zure hilobian,
eta lurra ez da ikaratzen
ez dagoelako lurrikararik
ez gerrarik.

Euria ari du
ez geltoki urrutietako
fabula ederrean,
errenta aitorpenaren
gainean baizik,
euria ari du txibia-hezurren eta
txerri-aska nazionalaren gainean.

Euria ari du
hemen balkoi irekitik
Egunkari Ofizialaren gainean,
euria ari du Parlamentuan,
euria ari du Solferino kalean,
euria ari du haizeak
paperak harrotu gabe.

Euria ari du
Ermioneren faltan
Jainkoak hala nahi badu,
euria ari du ausentzia
unibertsala delako,
eta lurra ikaratzen ez bada
da Arcetrik halakorik
agindu ez duelako.

Euria ari du oinbiko primatearen
episteme berrien gainean,
gizaki jainkotuarenean, zeru
gizatartuan, lanjantzian
edo printze-trajean dauden
teologoen muturretan,
euria ari du protestaren
progresoan,
euria ari du work in regress-aren gainean,
euria ari du
hilerriko altzifre
gaixoetan, tantak ari dira
iritzi publikoan.

Euria ari du baina zu agertzen zaren tokian
ez dago ez urik ez atmosferarik,
euria ari du zeren zu ez bazara
ez dago ausentzia baino
eta ito dezake.

Le Revenant

.....
lau silaba, ezezagun baten izena,
inoiz gehiago ikusi ez zenuena eta dudarik gabe
hila.
Pintore bat, baiki; gorteatu ere egin zintuen,
onartzen zenuen, baina gutxi: lotsatia zen.
Orain urte asko mintzatu ginen horretaz; gero
zu ez zeunden eta ez dut haren izena gorde.
Eta orain hona aldizkari klandestino bat
1900aren hasierako artista “loretan zapuztuen”
aurpegi eta margolanekin. Bada bertan haren
margolan zatar bat,
baina nork daki, agian bihar maisulana izango da.
Beharbada haren Klizia izan zinen
zuk jakin gabe. Albisteak ez nau pozten.
Galdezka nago zergatik bi txirriketako hariak
hainbeste nahastu diren; eta mamu hori
ez ote den benetako desagertua eta ni haren
faksimila.

Hilabete umeen artean

Umeak jolas berriekin
dabiltza jolasean,
Antzara jokoaren
aldagai ulergaitz aspergarriekin.

Umeek beren eskuetan
dute gure etorkizuna.
Ez hauek, pala-kolpeka darabiltenak,
belaunaldi urrutikoek baizik.

Gertakariak ez du garrantzirik,
ezta aurrekariek ere.
Hanken artean daukatena,
oraina da eta aurrera doa.

Umeek ez dute Jainkoarenganako
maitasunik ezta iritzirik ere.
Deskubritzen badute mondongoa
lerde-oreak eta emultsioak okatzen dituzte.

Umeak samurrak dira

eta ankerrak. Ez dute ezagutzen
beren gorputzaren eta
haren errautsen arteko aldea.

Umeek ez dute natura
maite, baina haren jabe dira egiten.
Dendak jartzen dituzte pinu artean,
eta erleen gisa dute burrunbatzen.

Umeek ez dute ziztatzen,
birrintzen baizik. Iratxoen gisa
agertzen dira eta arrakala
estuenetatik pasatzen.

Umeek ez dituzte
atsoak eta agureak baino jasaten.
Haien gorputzetan gora eta gora,
orratzak xerloak zintzilikariak dizkiete osten.

Umeak zoriontsuak dira
inoiz ez bezala. Fotograbatuetako
izenekin agertzen dira
garbigailuen iragarpenetan.

Umeei berdin zaie
beste Existentziarik dagoen.
Eta ondo egiten dute. Hezur
trinko hori ez da hazia.

Umeak...

Hitzak

Hitzek
esnatzen badira
ostatu erosoena
baztertzen dute, Fabriano
papera, tinta
txinatarra, ezkutuan gordeko
dituzten larruzko
karpeta edo belusezkoa;

hitzak
esnatzen direnean
fakturen ifrentzuan
pausatzen dira, loteriako
billeteen ertzetan,
eztei eta hiletetako
jakinarazpenetan;

hitzek ez dute
ezer hoberik eskatzen
eskuko Olivettiaren
teklen nahasmena baino,

atorraren patriketako iluntasuna,
zakarrontziaren hondoa
bil-puskak egindako paperekin;

hitzak
ez dira zipitzik ere pozten
neskanarrasen gisa kanpora boteak
izateaz ezta txaloen eta
desohorearen zaratarekin
onartuak izateaz ere;

hitzek
nahiago dute ametsa botilan
destaina baino izateagatik
irakurriak, salduak,
baltsamatuak, hibernatuak;

hitzak
denonak dira eta alferrik
gordetzen dira hiztegietan,
ez baita falta zerririk
trufa putz-kirastsuenak eta
arraroenak lurgaineratuko dituenik;

hitzek
itxaro eterno baten ondoren
uko egiten diote
behin bakarrik esanak
izateari
eta gero bere egin zituenarekin
hiltzeari.

68aren akabera

Ilargitik begietsi dut, edo kasik,
planeta apala bere baitan dituena
filosofia, teologia, politika,
pornografia, literatura, zientzia
agerikoak eta ezkutuak. Bertan dago gizakia ere,
eta ni horien artean. Eta dena da oso estrainioa.

Ordu gutxi barru ilunduko du eta urtea
amaituko da suzirien eta xanpainaren
eztanden artean. Agian lehergailuen edo are
okerragoen artean,
baina ez hemen ni nagoen tokian. Norbait hiltzen
bada
inork ez du haren axolarik baldin bada
ezezaguna eta urrutikoa.

Errepertorioa

Oroimenaren
errepertorioa higatua dago: larruzko maleta bat,
hainbat ostatutako tiketak zeramatzana.
Oraindik geratzen zaizue pegatinaren bat
askatzen ausartzen ez naizena. Maletazainek,
gauzainek, taxistek egingo dute.

Zure oroimenaren errepertorioa
zuk zeuk eman zenidan alde egin baino lehen.
Lurralde askoren izenak zeuden, egonaldien
datak eta finean orri zuri bat,
baina eten puntuekin… kasik iradokitzeko,
hori posible balitz, “jarraituko du”.

Gure oroimenaren
errepertorioa ezin liteke imajinatu
bitan banatua aizto batez. Folio bakarra da
seiluen, urraduren eta odol tantaren baten
arrastoekin.
Ez zen pasaporte bat, ezta zerbitzu onaren agiri bat
ere.

Zerbitzatzea, zerbitzatua izatea barne, bizitza litzateke oraindik.

Arte povera

Asto-euskarrian eginiko pinturak
sakrifizioak dakarzkio
egileari eta neke erantsia beti
hura erosi eta gero non eseki ez dakienari.
Hainbat urtetan ez ditut ehiza-lekuak baino pintatu
hegazti sareratuekin,
paper urdin azukretuan edo bilgarri kanelatsuan.
Ardoa eta kafea, hortzetako pastaren arrastoak
hondoan itsasoa edergarri ikusten bazen,
horiexek tintak.
Erabili nituen hautserrea eta
cappuccino-kondarrak ere Saint-Adressen,
Jongkindek
bere argi izoztuak aurkitu zituen leku berean
eta lanok zelofanaz eta alkanforraz babestu ziren
(arrakasta eskasarekin).
Nigan zegoen ezerezetik bizirautea lortu duen
nire partea da, zu zinen guztitik,
konturatu gabe.

Munduaren forma

Munduak mintzairaren egitura badu
eta mintzairak adimenaren forma,
adimena ez da ezer edo ia ezer
bere betealdi eta hutsuneekin eta ez gaitu errotzen.

Hala mintzatu zen Papirio. Ordurako ilun zen
eta euria ari zuen. Jo dezagun babesera,
esan zuen, eta pausoa bizkortu zuen ohartu gabe
eldarnioaren mintzaira zela berea.

Annecyren lakua

Ez dakit zergatik nire oroitzapenak
Aneccyren lakura zaitu lotzen,
zu hil baino urte batzuk lehenago bisitatu nuenera.
Orduan ez zintudan gogoratu, gaztea nintzen
eta nire zoriaren jabe nintzela uste nuen.
Oroitzapen hain lurperatu batek
nola kolpean jauzi egin dezakeen, ez dakit; segurki
zuk zeuk lurperatu ninduzun zeuk jakin gabe.
Orain bizirik berragertu zara eta ez zaude hemen.
Galde egin dezaket zure barnetegiaz,
neskatxak ikusi ilaran irteten,
zure pentsamendu bat aurkitu
bizirik zeundenekoa eta nik pentsatu gabea.
Egun, jada alferrik denean,
aski zait lakuaren argazkia.

Jainkoaren hizkuntza

Baldin jainkoa *bada* mintzaira, beste hainbat ere
sortu zituen Bata
gero denak nahasteko,
nola egingo dizkiogu galderak eta nola
sinetsiko dugu mintzatu dela eta mintzatuko dela
modu sekulan betirako dezifratu ezinean eta hori
hobe dela ezer baino? Baiki gara
ezer baino hobeak gu
sisibasan gelditua k. Eta ai egunen batean
ahotsak askatuko balira! Mintzairak,
ezereza izan ala ez,
bere amarruak ditu.

[ez naiz nekatzen]

Ez naiz nekatzen entrenatzaileari esaten
bota ezak toalla,
baina hark ez du ezer entzuten, zeren inoiz ez
baitute
ringean ikusi eta ezta handik kanpo ere.
Agian, bere gisara, ni desohoretik salbatu
nahian dabil. Idiota halakoaren nireganako
arduraren handiak
edo ni haren bufoia ote naizen
zabuan nauka esker onaren eta furiaren artean.

Schweitzer doktoreak

arrain biziak botatzen zizkien pelikano gosetiei.
Arrainak ere bizitza dira jakinarazi zuten,
baina hierarkia apalagokoak.

Zein hierarkiatakoak gara gu
eta zein ahutzetan…? Hemen teologoa isildu zen
eta izerdia sikatu zuen.

Verboten

Diotenez, Kafkaren gramatikan
geroaldia falta da. Horra anonimotasuna
gorde zuen baten deskubrimendua eta ondo egina.
Baina beldur izango da bere aurkikuntza itzelaren
ondorio agerikoena
edo baita belikoena ere. Eta Kafkak bera,
belamika maltzurra, errea izango litzateke
haren irudian eta haren obretan, zeinak
bestalde nekez saltzen baitira.

Balioen erorketa

Batxilergoko tesi bat irakurtzen ari naiz
balioen erorketaz.
Erori dena goian egona da, frogatu beharreko auzia
horixe,
eta nor da hain eroa hori egiteko?

Bizia ez dago goian eta ez dago behean
eta are gutxiago erdiko galgan. Deus daki
goiaz eta beheaz, beteaz eta hutsaz, lehenaz
eta ondorenaz. Orainaz ez daki pizarrik ere.

Puskatu zure folioak, bota estolderia batera,
ezeren batxiler horrek, eta esan ahal izango duzu
bizirik egon zarela (agian) lipar batez.

Amaitzeko

Gomendatzen diet nire oinordekoei
(baleude) arlo literarioan,
oso gertagarri ez dena, erre dezatela
sute eder batean zerikusia duen guztia
nire bizitzarekin, nire egintzekin, nire ez-eginekin.
Ez naiz Leopardi bat, gutxi uzten dut erretzeko
eta berez gehiegi da bizi ahal izatea bataz
bestekoan.
Ehuneko bostean bizi izan nintzen, etzazue
dosia gehitu. Aldiz, lodiegi egiten du euri
bustiaren gainean.

Heziketa intelektuala

Sabai handia où picoraient des focs
itsasoaren irudi idiliko bat da.
Ortzemugaren lerroa iluna da egun
eta itsasertzak pertza batek bezala du irakiten.
Lokomotora handiak pasatu zirenean hemendik,
Belerofonte, Orion haien izenak
forma guztiak urberak ziren
gaztearen gaztez eta haizerik
zakarrena fereka bat zen artean.

Gazte tupedun batek galdetzen zuen
gizona ote zen halabeharra edo asmoa,
lapsus bat edo garaipena... baina norena?
Halabeharra agertzen bada litekeenaren gisa
ez da asmo bat, ez bada garunen batean.
Eta zein buru unibertsalek
har gaitzake gutxitzat? Argitu beharreko
dilema bat zen (ez xaloentzat).

Bermeek esaten zuten logos zaharra
guztiz bat zela suginen giharrekin,

ikatzaren ke-bafada handiekin,
motorren uluekin, Beste Munduko
tik-tak ia mekanografikoarekin.
Eta gazte tupedunak duda egiten zuen
itsasoan jauzi egin besakada handiak emanez
egia balitz bezala inor ez dela ur berean
bi aldiz bainatzen.

Gazte tupeduna ez zen
ume bat haren ondoan agertzen zirenean
Kimerak, aurremundu bateko larbak,
igarleen eta gaixoen ahotsak,
jakintsuen aurpegiak, izen baten jabe izan eta gero
jada galdua zutenak, Santuak eta zoroen
princeps-a, orga-zaldi baten muturra
musukatu zuen hura eta ordutik iluntasun distiratsu
bateko apopilo izan zena.
Eta denbora pasatu zen.
Dena zegoen aldatuta. Itsasoa bera
zakarragoa zen. Ikusten ari naiz orain puntuan
haren eraso krudelak moilari, belek ez dute jada
edertzen, ez da ezeren sabai,
ezta bere buruarena ere.

Memoria

Memoria genero literario bat izan zen
artean eskritura jaio ez zenean.
Gero kronika eta tradizio bilakatu zen,
baina hilotz-kiratsa zerion ordurako.
Memoria bizia memoria betidanikoa da,
ez da gogamenean sortzen, ez da han hondoratzen.
Izaeradunari buruan itsasten zaio lanbrozko
aureola baten gisa. Desagertu zen jada, dudan da
itzuliko den. Bere baitaz ez dauka beti
memoriarik.

Bakardadea

Urrutiratzen banaiz bi egun
nire leihoan
mokokatzen duten uxoak
protestan hasten dira
beren premia korporatiboen bidetik.
Nire itzulerak ordena lehengoratzen du
papurrak gehituta, eta zozoaren
disgustua, atzera eta aurrera,
nire balkoitik pareko auzoarenera.
Hain apurrera laburtua da nire familia.
Eta badira baten faltan bi dituztenak, a ze
gehiegikeria.

Eurioste

Harea bustian ideogramak agertzen dira
oilo-hanken trazakoak. So dagit atzera
baina ez dakuskit gordelekuak edo hegaztien
aterpeak.
Ahate akitu bat pasatuko zen, edo apika herrena.
Ez nuke asmatuko halako hizkera deskriptatzen
ezta txinatarra banintz ere. Haize
bafada bat aski izango da ezabatzeko.
Ez da egia Natura mutua dela. Kale edo bale
mintzatzen da
eta esperantza bakarra da ez dadila gutaz
gehiegi ardura.

Iritzia

Nire lehen haixealdien sasoian
Iritzia ez zen artean jaio.
Orain nonahi dager, ikusia dute
lehen mailako eskoletan ere.
Gero eta iritzigai urriagoa da inork entzuten ez duen
Mesias bat topatu izana esaten duena ez ezazue
pentsatu.
Bizitzak ez dauka egiteko handirik
gizonarekin eta are gutxiago ideiekin.
Eta hortik aurrera zer egin lezake bizitzak?
Ez da ezer ondorioztatzen hemen mintzagai ditugun
mirari motetatik.
Izango da badakienik baina ahoa
iltzatuta dauka eta ez da mintzatzen.

Poeta bat

Urri geratzen zait hatsa, baina espero dut izango
dudala
hurrengo tiranoari nire olerki pobreak
eskaintzeko modua. Ez dit eskatuko zainak moztea
Neronek Lukanori bezala. Esker oneko bihotz
batetik
sortutako gorespen-ele bat nahiko du
eta oparo emango zaio. Utzi ahal izango dut halaber
urrats iraunkorra. Poesian funtsa ez du edukiak
baizik Formak.

Egunoroko historia

Zutik dirauen zientzia bakarra
eskatologia
ez da zientzia bat, eguneroko
gertakari bat da.
Ordezkatuak izan gabe desagertutako
apurrena.
Zer axola apurrek, egiten du marmar
aztiak,
gelditzen dena pastela da, nahiz mutxikatua egon
eta pixka bat xapaldua ere bai han-hemen.
Zahartze on baten baitan dago dena,
zaporearen mesedetan egingo ditu
hobe ehun urte hamar baino, mila ehun baino.
Zortedunagoa izango da noski,
oharkabean, etorkizuneko dastatzailea
eta “gainerakoa literatura da”.

Gure garaiaren gorazarre

Ezin liteke gehiegi hanpatu
munduaren inportantzia
(gurearena, esan nahi dut)
seguru asko bakarra
non posible den artearekin
erailtzea eta baita arte-lanak sortzea
ere bizitzera deituak
goiz bateko iraupenez, nahiz orain milurte asko
eginak izan edo are lehenago ere. Ez, ezin da
nahikoa goretsi. Soilik da
presa hartu behar dugula
zeren baliteke-eta
apologo ezagun batek dioen bezala
ez egotea urrun igela
neurriz kanpo puztuko den ordua.

Sumina

Sumina gizakia bezain zaharra da
baina uste zuen helburu bat zeukala.
Orain askitzat du bere burua. Aurrerapauso bat da,
baina ez nahikoa. Gizakiak, nahiz
oinbikoa izaten jarraitu, beste piztia
bat bilakatu behar du. Orduan soilik
izango da, lau hankako piztiak bezala, ez-kaltegarria
beste baten erasorik gabe. Urte batzuk beharko dira
edo milaka urte. Begi-kliska bat da.

Epigrama

Bertizea zenita
kupula gailurra
o Numenok
ez ditu inork gelditzen.

Eta bada harritzen denik
inork bere burua botatzen badu
leihotik.

Iparreko hiri batean

Eden jatorrizkoaren kopia gisa
orijinalaren kotejoa falta du.
Izatez edozerk balio du. Katagorriek
adar gorenen trapezioetan egiten dute salto.
Umeak urri, bakoitza aita eta ama askorena.
Nahiz ez den hotz, izozte-airea dabil.
Udaberrian azeriengandik edo larrutarako
piztiengandik babestu beharko du.
Horixe kontatu dit hona kasualki iritsitako
nire auto-gidari galiziar edo nafarrak.
Ez doakio demokrazia. Ezta
Villanovako markesari ere.
Begiratzen, pentsatzen, disimulatzen dut. Garesti
ordaintzen da arima modernoa. Saia ninteke.

Poesia

(Italian)

Mendearen oilaritetik eztabaidatzen da
poesia barruan edo kanpoan dagoen.
Estreina barruak irabazi zuen, gero kanpoak
kontraeraso latza jo zuen eta urte askoren ostean
forfait batera heldu dira,
baina ez du askorik iraungo kanpoa
armatu egin baita oinetatik zimetaraino.

[bizitzak]

Bizitzak zabu egiten du
goienendik beherengora
bigarrenarekiko
aldaro halako batez.
Gehiago jakingo dugu
hauteskunde azkenen ondoren
han goian egingo direnak
edo hemen behean edo inon ez,
hautatuak izan ginelako
guztiok
eta hala izan ez dena
hobeto dago hemen behean
eta konturatu orduko
berantegi da
les jeux sont faits
dio croupierrak azkeneko aldiz
eta haren koilaratzarrak
kartak jasotzen ditu.

[kreatzailea]

Kreatzailea ezkreatua izan zen eta horrek
ez nau onaizetzen. Hala ez balitz
denok haren oinetan geundeke
(esateko era bat da)
dohakabe eta gurtzaile.

Aspasia

Gau beranduan gizonak
haren gelan sartzen ziren
leihotik. Beheko solairuan zegoen.
Aspasia deitu nion eta poztu egin zen.
Gero joan egin zen. Tabernari izan zen, ile-
apaintzaile eta beste.
Bakanetan topatzen nuen.
Halakoetan Aspasia! deitzen nion ozen
eta hark gelditu gabe irribarre egiten zuen.
Adin bertsukoak ginen, aspaldi hila izango da.
Infernuan sartzerakoan, ia usadio hutsez,
Aspasia egingo diot oihu irribarre dagien lehen
itzalari.
Berak aurrera egingo du naturalki. Inoiz
ez dugu jakingo nor izan zen eta nor ez
tximeleta hura apenas zeramana
nik asmatutako izen bat baino ez.

Udaberriko murmua

Bahiketen sasoia da
gomendatzen da ez irtetea bakarrik
arratseko orduak dira arriskutsuenak
baina saihestu, jakina, egunargikoak ere
judo eta karate maisuek
pagotxa zerutiarra dute
jostunek pistolen kontrako
jakak dituzte egiten
seme-alaben gurasoak eskolara doaz
gurasoen seme-alabak ez hainbeste
gure zibilizazioak bere asea jo du,
barkatu galizismoa, mozalak puskaturik
hizkuntzak askatu dira ez dute frenurik.

[babes nazazue]

Babes nazazue
ene zaintzaile isilok
eguzkia hozten ari baita
eta ereinotzaren azken hostoa
haustua baitzegoen
eta ez baitzuen balio ezta
gisatuaren kazolarako ere —
babes nazazue bi sosetako
pelikula honetatik
zeinak pasatzen segitzen baitu
nire aurrean
eta ni bertako partaide izatea nahi baitu
aktore edo estra gisa,
gidoian aurreikusten ez zena bestalde —
babes nazazue halaber
zuen presentziatik
ia gehienetan alferrikakoa
eta garaiz kanpokoa
babes nazazue
zuen ausentzia izugarritik —
nire inguruan sortzen duzuen

hutsunetik
babes nazazue Musengandik
zeinak ikusi baititut goratuak
eta baita busto erditik moztuak ere
hobeto ezkutatzeko
nire mamu-ibileretatik —
babes nazazue edo are egokiagoa dena
egidazue ezikusiarena
bildu nadinean urtetan
ordaindu dudan horma-hilobian —
babes nazazue Larousse ilustratuan
sartu ninduen fama/fartsatik
gero nire presentzia ezabatzeko
azken edizioan —
babes nazazue
eskatzen dizuenarengandik
egoteko nire katafalkoaren inguruan —
babes nazazue zuen ahanzturarekin
horrek balioko balizue niri irmo eusteko
etxe-jainko gaxoak beti gordeta
zuen duda-mudako identitatean —
babes nazazue inori
ezer jakinarazi gabe
zeren eguzkia hozten hasi baita

eta gaiztoki gozatzen baitu
horren jakitun denak
o eter handitik iraitziak
izan zineten nire numen ttipiak
hirugarren mailako jainkoak.

Lo susta

Loa berandu dator
gero abisatu gabe bereganatuko nau.
Kanpoan zerbait gertatu behar du
esango didana mundua existitzen dela eta
ustez biziak ez daudela denak hilak.
Akulturatuak poetak eroak
makinak negozioak iritziak
zer nolako pertza ustel kirastsua!
Eta ni han barruan zimetaraino sartua!
Oraingoan pietateak barreari irabazten dio.

Errore bat

Halabeharrez
esango dute radoteur bat ari dela hizketan
egutegiarekin neurtzen ariko balitz bezala
jakituria.
Ez daude bizitza laburrak edo luzeak
benetako bizitzak baizik edo bizitzaheriotzak edo
halakoak.
Ez naute aterako ibairen batetik
puztuta esponja bat bezala. Ordaintzen den
errore bat da.

Morgana

Ez zait buruan sartzen zure gaztetasuna
hainbeste denbora (eta a ze denbora!)
luzatu izana.
Artaldea abandonatzeaz
salatu ninduten
ia sentitu izan banintz bezala
ospetsua, ex gregis, edo auskalo zer beste txerren.
Aldiz esan nuena da revenons
à nos moutons (baina ez artaldera)
eta jendailak pentsatu zuen
multiplo baten parte izatearen zoritxar huraxe
arima okertu baten zantzua izan zitekeela
eta bihotz gupidagabe batena.
Ai ene alaba gurtua, nire benetako
Gaueko Erregina, nire Kordelia,
nire Brunilda, nire enara egunsentian,
nire baby-sitterra burua alderrai darabildanean,
nire ezpata eta ezkutua,
ai ene nola galtzen diren aztarnak
gure mundualdian zaindu gintuzten Maneenak,
bi gizakiren guardan

egon direnen artean ankerrenenak.
Esan dute idatzi dute fedea faltatu zitzaigula.
Beharbada suzedaneo bat eduki genuen.
Fedea beste kontu bat da. Hala esana dago
baina ez dago esana segurua denik esandakoa.
Akaso aski izango zen Hondamendiko fede hura,
baina ez zuretzat Jainkoengandik irten zinena
haien altzora itzultzeko.

Arkakusoak

Ez al duzu sekula eduki arkakuso bat
bere odola nahastuz
zurearekin
irabiatu bat eginez
hilezkortasuna oparitzeko guri?
Horrela gertatu zen Seicento urrezkoan.
Baina gaur denbora betearen sasoian
gutxiagok ematen du hilezkortasuna
nahiz denbora laburtzen ari den eta mendeak
ez diren lumak airean baino.

Motiboak

Agian ez zen alferrik
hainbeste neke
hainbeste min.
Eta agian horixe
pentsatzen du gutaz eta bere buruaz
zozo-aizun ekialdekoak
bere kaiolan txistuka
eta gure ahotsa imitatuz.
Bada txistu gehiago
eta txistu gutxiago egiten duenik
baina hori ere humanoa da.

Sigi-sagaka

Harean etzan eta hausnarrean nago.
Coboldo apaiz badaezpadako baten
prosa dut irakurgai. Baina pentsamendua urrutira
doa.
Konstantzako Kontzilioa bukatu eta bi mendera
Ingalaterrako par batek, poeta eta putanerra bera,
hiltzeko zorian zegoela
betirako bizitza ukatu zuen irmoki
eta gero konbertitu egin zen
atsegin emateko aitorleari,
konberti zedila agindu zion emazteari,
ordurako deskonbertitua bera,
beste konfesio batera pasatu zen,
eta konbertituko zituen zirenak eta ez zirenak ere
auziari amaiera emateko.

Orain eguzkia benetan ari da sartzen.
Sakonean Coboldo dontsua ez dago hain erratua.
Egun ez dugu elkar hiltzen txalo eta festen erdian.
Beste modu batzuk aukeratu dira. 120 kristau
konfesio daude eta dirudienez gutxi dira.

Irabaz dezala txarrenak

esan zuen bere izena isildu behar den Hark,
baina gero zalantzak hartu zuen
eta haren diktat-ak zuloak utzi zituen nonahi.
Garailea garaitua
bizia hila astoa eta jakituna
harremanetan daude ukondoz ukondo
hobe esan ez daude hain elkar hartuta
edo hitzak saihestu egiten duen
beste leku batean daude.

[izan liteke]

Izan liteke ezkerrekoa
edo eskuinekoa
edo erdikoa,
edo hiruretakoa, ez baitu kalterik egiten.
Baina horrek guztiak esan nahi du
Izatea dudagabea dela,
elikatzen gaituen potaje bakarra dela
mahaian esertzen garenean.
Helas, poor Yorick, zein kaskarinak
garen (eta hauxe da
gure ziurtasun bakarra).

Loria edo kasik

Ginebran Nazioarteko Jardunaldi
zorionez desagertuetan bazen besaulki bat
beti hutsa eta bertan etiketa bat zioena
Erreserbatua Afrikan Spir-en
alarguntsarentzat.
Antzeko etiketak agertzen dira
mundu erdiko besaulkietan
ikusia dudan bezala Eco di Mazara del Vallo-ko
edo Diario de Pamplonako orrialde jantzietan.
Iruditzen zait niretzat ere pentsatuko zutela
halako azpilanen bat ezkongeak baztertzen ez
dituena.
Ezagutzeko ohorea izan nuen
Afrikanen emazte harrigarri hark baztertu izan balu
baztertu beharrekoa,
senarra poztuko zen segurki,
oso zen-eta nihilista zentzu filosofikoan ezen ez
politikoan,
Ez zuen bere burua baliogabetu. Haren emaztearen
lan
penagarriaz gainera hor daude nonahi

liburu tzar horiek, Entziklopediak, zeinetan S letran agertzen baita

izen bat emaztearen ibilerarik gabe ere,

eta pozjario gutxirekin bere aldetik, lortuko zukeen denboraren gainetik flotatzea.

[nire ordulari suitzarrak]

Nire ordulari suitzarrak denbora
bere gisara dastatzeko grina zuen.
Eta hala gertatu zen
5ak zirelarik artean eta ez 6ak
ni San Marco kafetegian eseri nintzenean.
Txikikeria zirudien, agian baita zorte-kolpe bat ere
hitzorduaren luzapen delakoa,
nahiz berak itxaroak ez zituen gogoko,
baina haren zurbiltasuna laster bihurtu zen nirea.
Zenbat luzatu behar du (ustez) azkeneko
agurrak? Ez dago Erotikako eskulibururik
jainko baten desagerpena duinki
ilustratuko duenik. Halako egoera batean,
ordulariak aurreratzea edo atzeratzea
ez da muntakoa.

Gaur modan da

Egunero gertatzen da urtaroen,
herrien, ideien iraultzaren bat.
Sine die atzeratzen da erabaki oro.
Ezer ez da jada iraunkor, bandera guztien pean
entzuten den abestiren bat salbu.
Uholdetik zer salbatuko den,
inork ez daki. Hainbat hondakinen
ostean hitza ere hobiratuta geratuko da agian.
Esperantza geratzen zaigu anakoretaren batek
erretxina urretsuak destilatuko dituela
jakintzaren enbor ustelkaretatik.

Honoris causa

Pentsatzen dute irakasletxoek
poesia egiteko
lizentziatu beharra dagoela.
Eta hurrengo belaunaldiek
ikusiko dute
halako baieztapenen kaltea.
Esango da: poeta ona izan zen
lizentziatura lortu zuelako
ohorezko titulutzat.

Suntsipenaren aroa

Eromena izan ote zen gertakariak
gidatu zituen eskua edo autosuntsiketaren irrika
ez dut sekula ulertu.
Pupurri honetan gizakiak
gauzen irla nahastu du. Galdu zuen
helburua eta dena zalantza bihurtu du.
Duda-muda gelditu da haren urratsak gidatzen.
Egun batean joko miresgarriaren egileak
esango du: aski da, amaitu da bidaia.
Eta bitartean denbora aletzen doa beti garratza izan
ohi den
bizitzaren errealitate suntsitua.

[zein da aldea]

Zein da aldea
txirritaren eta inurriaren artean,
barreiatzailearen eta patxadatsuaren artean,
bi-biak biluzik irtengo baitira
dena berdintzen duen
bidaiatik? *Ez dago garaile eta*
galtzailerik, esaera herrikoiak
zorrotz balio du adierazteko
aukeren lakirio hilkorra.
Txalupen gisa nahiko dugu nabigatu
hondartza hobeetara, baina
gure ezerezean ainguratuta geratzen gara.

[egun ez urrun]

Egun ez urrun batean
planeten talkaren lekuko
izango gara eta zeru diamantezkoa
hondoratu egingo da hobietan.
Orduan lore distirantak jasoko ditugu
eta neoizko izarrak.
Begira, hara hor seinalea, su bat
eseki da zeruan, Jupiterrek
eta Orionek elkar jo dute eta burrunba
izugarrian gizakia non galdu da?
Ezbairik gabe gu bizi garen munduari aski zaio
ufada bat desagertzeko.
Agian oihu bat gelditukо da,
lurrarena, zeinak ez baitu bukatu nahi.